

220 IKASLEK EUREN IKASTETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA %5ean MURRIZTEA LORTU DUTE; AITORTZA JASO DUTE EGINDAKO LANAGATIK

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle horiek Aktibatu+ programaren laugarren edizioan parte hartu dute. Bizkaiko Foru Aldundiaren Aktibatu+ ekimenaren helburua da iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzea, eta honakoan laguntzaz garatu da: Eusko Jaurlaritza, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Eroski Taldea eta Metro Bilbao.
- Global Action Plan - Ekintza Globalerako Programa (GAP) ardatz hartuta, Nazio Batuek babestutako nazioarteko programa hau ikuspegi positibo, ideia arrunt eta ekintza praktikoetan oinarrituta dago.
- Ikasleak Busturialdea-Urdaibai, Mungialdea, Txorierri, Erandio, Getxo eta Leioako 19 ikastetxetakoak dira, eta bi modulu landu dituzte: alde batetik, energia-kontsumoa murriztea helburu duena; eta, bestetik, hondakinen ekoizpena murriztea, horien kudeaketa hobetzea eta erosketa-irizpide iraunkorrakoak ezartzea helburu duena.

Leioa, 2016ko ekainaren 6a. Gure Lurraldeko 19 ikastetxetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 200etik gora ikaslek aitortza jaso dute gaur ikasturte honetan Aktibatu+ programaren baitan egindako lanarengatik. Bizkaiko Foru Aldundiaren Aktibatu+ ekimenaren helburua da iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzea, eta honakoan laguntzaz garatu da: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Eroski Taldea eta Metro Bilbao. Garatutako ekimenen bitartez, ikasle horiek batzaz beste %5ean murriztu ahal izan dute euren ikastetxeetako energia-kontsumoa (kasu horietako batean %20ko portzentajea lortu dute) eta, era berean, hondakin gutxiago sortzea, gaikako bilketa areagotzea eta erosketak modu iraunkorragoan kudeatzeko irizpide berriak finkatzea ere lortu dute.

Leioan burututako ekitaldian, ikasleek programaren modulu etako batean parte hartu izana egiaztatzen duen diploma jaso dute, eta bertan izan dira, baita, zenbait instituziotako ordezkariak: Elena Unzueta, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailburua; Unai Gangoiti, Ingurumen arloko Foru Zuzendaria; Alexander Boto, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurumenaren eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaria; eta Carlos Oppe, Nazioarteko GAPen zuzendaria.

Gainera, sariak eman zaizkie Busturialdea-Urdaibai, Mungialdea, Txorierri, Erandio, Getxo eta Leioako 19 ikastetxeen artean epaimahaiak aukeratutako lanen egileei.

Hain zuzen ere, hauek izan dira banatutako sariak:

Erosketa-Hondakinen Modulua	
1. Saria: Urdaibai Bird Centerren bisita gidatua (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik)	Sta. M^a del Socorro - Mertzedede Ikastetxea.
2. Saria: Getxo Aquariumera bisita (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik)	Eleizalde Ikastola
3. Saria: Deustuko sifoian bisita gidatua (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eskutik)	Jose M^a Uzelai Herri Ikastetxea
Emaitzarik onenak lortu dituen zentroaren aipamen berezia: Urkiola parkean bisita gidatua (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik)	Mundaka LHI
Komunikazio kanpainarik ikusgarriena egin duen zentroaren aipamen berezia: Betelurin bisita gidatua (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eskutik)	Montorre LHI

Energiaren Modulua	
1. Saria: Metro Bilbaoren instalazioetan bisita eta bidaia kabinan (Metro Bilbaoren eskutik)	CEIP Lezama HLHI
2. Saria: Armañongo parketxera bisita (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik)	Larrabetzuko eskola
3. Saria: Gorbeiaiko parketxera bisita (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik)	CEIP Larrañazubi HLHI
Emaitzarik onenak lortu dituen zentroaren aipamen berezia: Galindon bisita gidatua (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eskutik)	Txomin Aresti LHI
Komunikazio kanpainarik ikusgarriena egin duen zentroaren aipamen berezia: GARBIKERen bisita gidatua (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik)	Artatza-Erromo BHI

Aktibatu+ programa

Nazio Batuek babestutako nazioarteko Aktibatu+ programak laugarren edizioa dauka aurten eta Global Action Plan - Ekintza Globalerako Programan (GAP) oinarrituta dago, ikuspegi positibo, ideia arrunt eta ekintza praktikoak ardatz hartuta.

Ikastetxeen kasuan, bi modulu barne hartzen ditu: alde batetik, Energiaren modulua, energiaren erabilera arrazionalizatuz energia-kontsumoa murriztea helburu duena; eta, bestetik, Erosketa-Hondakinen modulua, hondakinen ekoizpena murriztea, horien kudeaketa hobetzea eta erosketa-irizpide iraunkorragoak finkatzea helburu duena.

Edizio honetan, parte hartu duten zentroetatik bederatzik (Txorierrri eta Getxo zein Leioakoak) Energiaren modulua landu dute. Ikastetxe horietako ikasleek hasierako ikuskaritza egin dute, kontadoreen azterketatik abiatuta, eta ondoren, 7 eta 8 ikasgela aukeratu dituzte, horiek hutsik daudenean zein argi eta gailu piztuta geratzen diren aztertzeko. Jasotako datuetan oinarrituta, eta energia-kudeaketaren xehetasunak ezagutzeko ikastetxe bakoitzeko mantentze-lanen arduradunekin egindako elkarrizketak baliatuz, talde bakoitzak neurri zuzentzaileen paketea sortu du. Jarraian, neurri horien berri eman die irakasleei, irakasle ez diren langileei eta ikaskide guztiei, haiek beraiek diseinatutako komunikazio kanpainen bitartez.

Neurri zuzentzaile horiek ezarri ondoren, taldeak bigarren ikuskaritza egin du, eta jasotako emaitzak aurretik egindako analisian jasotako emaitzekin alderatu ditu. Edizio honetan, oro har, ikasleek proposatutako neurriei esker, erabilera eraginkorragoa erregistratu da ikastetxe guztietan; hala, batz bestea, kontsumoa %5 murriztea lortu da, zentroetako batean energia-kontsumoa %20an murriztea lortu delarik.

Aipatutako zentroetatik hamarrek parte hartu dute hondakinen moduluan (Busturialdea-Urdaibai eta Mungialdea). Talde horiek ere antzeko prozedura jarraitu dute; alegia, bi ikuskaritza egin dituzte, eta, horien bitartez, egiaztatu ahal izan dute emaitzak oso pozgarriak izan direla: hondakinen ekoizpen txikiagoa, gaikako bilketan gorakada eta ikastetxeetan erosketak modu iraunkorragoan kudeatzeko irizpide berriak.

Etxeei dagokienez, kanpainak zabalik jarraitzen du. Hortaz, jarduera horretan parte hartu nahi dutenek eskura dute webgune espezifikoak, bertan eskaintzen diren tresna sinple eta eraginkorren bitartez erosketa-hondakinei, urari, energiari eta mugikortasunari aurre egiteko. Plataformara udalerrri eta mankomunitate parte-hartzaileen webguneetatik sartzen da, edo bestela, www.bizkaia21.eus webgunetik, Aktibatutako + atalean kontsultatuta.

Parte-hartzaileak izena eman ondoren, honen eguneroko ohituren iraunkortasuna aztertzen du plataformak. Ebaluazio hori burututa, ohiturok ingurumenean duten eragin negatiboa hobetzeko aldatu beharreko alderdiak nabarmentzen dira, horretarako informazio eskuliburu praktikoak erabiliz. Fase bakoitza bukatutakoan, etxebizitzetara zuzendutako atalean barne hartzen diren parte-hartzaileek zozketa batean parte hartuko dute eta sari ugari eta askotarikoak jasotzeko aukera izango dute (IPad-ak, bizikletak, landetxeetan egonaldiak, liburu loteak edo bisita gidatuak Bizkaiko leku ezagunetan).

Lehen hiru faseen balantzea

Beste 42 ikastetxek aurreko hiru faseetan izandako inplikazioaren ondorioz, ia %20ko aurrezpena izan dute urtean energia-kontsumoan, baita CO₂ isurietan 2 tonako murrizketa ere. Gainera, programa bukatutakoan, ikastetxe gehienetan hobetu egin zen gaikako bilketa eta zenbait hondakin mota murriztu ziren. Halaber, ikastetxe horiek hobetu egin zituzten erosketa iraunkorrerako irizpideak, hondakin gutxiago sortze aldera. Bide horretan, adibidez, bidezko merkataritza produktuen erosketa areagotu dute, ontzi handiak dituzten produktu gehiago erosten dituzte (gehiegizko bilgarriak saihesteko), eta katilu eta edalontzi berrerabilgarriak eskuratu dituzte.

Etxebizitzetara dagokienez, gaur egun arte Aktibat+ programa 73 udalerritan garatu da, batzuetan beste 1.500 etxebizitzaren parte-hartzea izanik. Eskuratutako emaitzen artean, nabarmentzekoa da energia kontsumoan %5,8ko aurrezpena izan dutela, ur kontsumoa %2,9 murriztu dutela, %1,9 hondakin gutxiago sortzea lortu dutela eta CO₂ isuriak %1,7 murriztu direla, mugikortasun ohiturak aldatuz.